

 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA	Espedientea:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2024WDIZ0004
	Sarrera-erregistroa.:	000616 - 2024/02/19
	Dekretu-zk.:	282 / 2024
	Titularra:	FUNDACION OBSERVATORIO DE DERECHOS LINGÜISTIC
	Ordezkarria:	AGURNE GAUBECA ERAUZQUIN
	Gaia:	BEHATOKIA: 2024ko dirulaguntza

282/2024 ALKATE DEKRETUA

2024ko otsailaren 19an, Agurne Gaubeka Erauskin andreak, HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIA-ren izenean 616 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarako Udalean.

Aipatu eskaeran adierazten den moduan, Hizkuntza Eskubideen Behatokia Euskal Herriko hizkuntza-eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein eremu sozioekonomikoan, bermatzera zuzentzen du bere jardueran.

Ibarako udala bat dator Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren lanarekin eta helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarako udalak 2024ko martxoaren 24an onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Hizkuntza Eskubideen Behatokia.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Hizkuntza Eskubideen Behatokia delako, Euskal Herriko hizkuntza-eskubideen arduratzen den erakunde bakarrak.

Kontuan harturik, Euskara arloko dirulaguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.06 diru-partida .

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundearen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA.- Diruz laguntzea Euskal Herriko hizkuntza-eskubideez arduratzen den eta bere jardueran eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein eremu sozioekonomikoan, bermatzera zuzentzen duen Hizkuntza eskubideen Behatokia.

BIGARRENA.- Aipatu dirulaguntza 800 €koa izango da eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiari (G31724339) ordainduko zaio ES51 3035 0111 66 1110025640 kontu korrontean

HIRUGARRENA.- Aipatu kopurua 2024ko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.06 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administratziotik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

BOSGARRENA.- Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da

SEIGARRENA.- Egindako diru-ekarpena justifikatzeko Hizkuntza Eskubideek Behatokiak honakoa aurkeztu beharko dute 2025ko urtarrilaren 31a baino lehen:

a. Jardueraren memoria, dirulaguntza jaso duen ekintzarena.

b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

	Espedientea:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2024WDIZ0004
	Sarrera-erregistroa.:	000616 - 2024/02/19
	Dekretu-zk.:	282 / 2024
	Titularra:	FUNDACION OBSERVATORIO DE DERECHOS LINGÜISTIC
	Ordezkarria:	AGURNE GAUBECA ERAUZQUIN
	Gaia:	BEHATOKIA: 2024ko dirulaguntza

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio (E).

BEDERATZIGARRENA.- Aipatutako akordioaren berri udalbatzari emango zaio egiten duen lehen bilkuran.

Ibarra, 2024ko maiatzaren 13a

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024WDIZ0003-Dekretua/Decreto ()